Sagardo naturalaren eguna

1982. urteaz geroztik, Usurbilek egun berezia ospatzen du sagardoaren kultura zabaltzeko

Badira hogei urte Usurbil herriak gure sagardo naturalaren egun berezia ospatzen duela sagardoaren kultura zabaltzeko asmoz. Hasieran, 1982. urtean, Andatza K.K. Elkartea izan zen antolatzailea eta, egun, Sagardo Egunaren Lagunak taldea da. Beraz, aurten 21. edizioa ospatuko da maiatzaren hirugarren astebukaeran, datorren igandean.



Euskal Herriko berrogei sagardogilek baino gehiagok eskainiko dituzte aurtengo sagardoak dastatzeko. Jon URBE

Euskal Herriko berrogei sagardogilek baino gehiagok eskainiko dituzte aurtengo sagardoak dastatzeko. Horretarako aukera herriko frontoian eta dema plazan izango da goiz partean eta, gainera, egitarau interesgarria egongo da egun osoan zehar.

Nork pentsa zezakeen hasieran, 1982. urtean, hainbeste jende bilduko zenik –antolatzileen datuen arabera 10.000 lagun lehengo urtean– azken urteotan? 70eko hamarkadaren amaiera aldera sagardoaren egoera ez zen egungoa. Edari folkloriko eta ia marjinal bat zen. Baserriak ezkutatuta eta gizartetik nahiko bazterturik zeuden. Egoera hori izanik, herriko Andatz Kultur taldearen inguruan bildurik, gazte talde batek Sagardo Eguna antolatzea erabaki zuen, sagardoa sustatu nahian. Egun berezia ospatzeak hiru helburu nagusi zituen, antolatzaileen arabera: "Sagardoa edari prestijioduna bihurtu; sagardoaren inguruko mundua, sagar barietateak, sagardogintza eta abar ezagutzera eman; eta, azkenik, sagardoaren inguruko kultura, euskara, bertsolaritza eta beste bultzatu". Aipatutako helburu horiek dira oraindik ere garrantzitsuenak, eta Sagardo Egunak egitura bera du oinarrian.

Sagardoa dastatzeko 55 bat postu jarriko dituzte Gipuzkoako sagardogileek. Lehenengo edizioan, 1982. urtean, 13 jarri ziren eta pixkanaka-pixkanaka iritsi da gaur eungo zenbakira. Goiz partean bertara hurbiltzen denak nahi adina sagardo edan dezake dohainik. Horretarako, edalontzi bat erosi behar da (Sagardo Egunaren grabatua daukaten basoak edo arruntak); besterik ez.

Urtero, Sagardo Egunean, erakusketa tekniko eta pedagogiko bat zabaltzen da. Urtean zehar honako erakusketa hauek ikusteko aukera izan da: Usurbilgo baserrietako dolareak (Herriko baserrietan zirauten dolareen argazki bilduma eta beraien xehetasunei buruzko argibideak)–; Sagardotarako sagar barietateak; Sagardogintza naturala (baserrietako sagardoa egiteko era pausoz pauso adierazten duen argazki bilduma); Kupelgintza (kupela eta barrikak egiten erakusketa bizia eta idatzizko txostena); Sagarrondotik sagarrera udaberritik uda bitartean gauzaten duen bilakaera fenologikoa; Sagardogintza industriala (egungo sagardo industriatan edaria egiteko prozedura); Asturiasko sagardoa (bertako sagardoa, botatzaileak eta argazkiak); Sagarrondoaren txertaketa (erakusketa teknikoa, txertaketaren arrazoia eta garrantzia sagarrondoaren oparitasunean); Botila berria (sagardoarentzako ontzi berriaren aurkezpena); Sagardoza (sagardo pattarra eta destilazioa); Europako sagardoak (Ingalaterra, Normandia, Wales, Asturias, eta abar) eta Sagardo mahian (urteetan zehar edateko modua eta mahaian zerbitzatzeko beharrezko tresneria eta teknikak). Aurtengo erakusketa sorpesa izango da. Agian, hogei urte hauetan egin diren argazkiekin erakusketa berezi bat egingo dute. Sagardo Egunaren historia izango da beraz.

Sagardoa Eguna, datorren igandean, goizeko 11etan hasi eta arratsaldeko erromeriara arte, egun guztiko jaia izango da. Sagardo dastaketaz gain, hainbat ekitaldi izango dira Usurbilgo plaza inguruan. Sagardoa ez ezik, pintxoak eta sagarrez eta sagardoz eginiko jakiak ere salgai izango dira. Eguerdian sagardo botatzaileren lehiaketa ospatuko da eta arratsaldean, berriz, festa giroa izango da erromerian txaranga batekin.

USURBILGO UDALA

Sagardoaren eguna da ta
giro hobean ezin bil,
ongi etorri guziok honuntz
haize sanoa hemen dabil,
presoak eta iheslariak
bihotzez dauzkagu hurbil,
gure euskara izango dugu
askatasunaren kurpil,
sagardoaren grazi kutsuak
bedeinkatzen du Usurbil.

MAIATZAREN 19an SAGARDO EGUNA. GERTURA HADI!